

Klima-aldaketa eta elikadura



12 URTE! igaro dira Lezoko ikastetxeetan Eskolako Agenda 21 izeneko hezkuntza-programa 2008-2009 ikasturtean abiarazi genuenetik. Urte hauetan guztietan zehar ingurumenarekin zerikusia duten hainbat arlo landu ditugu: ura, energia, hondakinak, biodibertsitatea, elikadura, mugikortasuna, kontsumo arduratsua, zarata eta klima-aldaketa (energia). Ikasturte honetan, iazko gaiari jarraipena emanez, Klima-aldaketa lantzen jarraitu dugu, baina elikaduraren ikuspuntutik.

Aurtengo ikasturtea berezia izan da, COVID-19 birusak eragindako egoera aldrebes honetan urteroko jarduerak

egokitu behar izan ditugulako eta, ondorioz, ezin izan dugulako herri-diagnostikoa bere osotasunean aurrera eraman. Dena den, jarduera ezberdinak egin ditugu eta ondorio batzuk atera ere bai.

Aurten 2 ikastetxek parte hartu dugu ingurumen-hezkuntzako programa honetan: Lezo Institutua eta Pasaia-Lezo Lizeoa. Lanketan ez gara bakarrik egon eta irakasleen, gurasoen, ikastetxeetako gainerako langileen eta Udalaren laguntza izan dugu. Horregatik, guztiarengatik,

Mila esker guztioi!



Han pasado 12 años desde que los centros escolares de Lezo iniciamos el proyecto de Agenda 21 Escolar. A lo largo de estos años hemos trabajado muchos temas: agua, energía, residuos, ruido, cambio climático, biodiversidad, etc. Durante el curso hemos trabajado el Cambio Climático y la alimentación. Este año, debido al COVID-19 hemos tenido que adaptarnos a la situación, y, por ello, no hemos podido elaborar el diagnóstico del municipio. Sin embargo, hemos podido hacer algunas actividades y sacar algunos resultados.

¡Gracias a tod@s por vuestra participación!

ERLE-LOREA (*Ophrys apifera*)

BA AL ZENEKIEN ERLE-LOREA IZENENKO ORKIDEA LEZON AURKITU DEZAKEGULA?

Apirila eta uztaila bitartean loratzen da. Landare askok animaliak imitatuz hazten dira eta lore hau horren adibidea da, izan ere, erle-itxura du. Horri esker, erleak erakarri eta polinizazioa ahalbidetu dute.




Nahiz eta espeziea babestuta ez egon, Lezon erle-lore gutxi daude. Landarea herritar guztiek ikusi eta balioesteko helburuarekin udalak hainbat ohar jarri ditu. Hori dela eta, ERRESPECTATU eta ZAIN dezagun, mesedez.

¿SABÍAIS QUE EN LEZO ES POSIBLE ENCONTRAR LA ORQUÍDEA ABEJA? Por favor, respétala y cuídala.

ARGAZKI eta MARRAZKI LEHIAKETA

KLIMA-ALDAKETA ETA ELIKADURA GAIA OINARRITZAT HARTUTA LEHIAKETA BAT OSPATU DA LEZOKO AGENDA 21EAN PARTE HARTZEN DUTEN IKASTETXEEN ARTEAN.



Bi kategoria sortu dira, adinaren arabera. LHko ikasleek marrazkiak egin dituzte. DBHko ikasleak, aldiz, argazkiak. Sormen handiko proposamen asko jaso dira. Zorionak parte hartu duzuen guztioi!

Sariak:

Lehen Hezkuntzako kategorian irabazlea ez egotea adostu da. Egoerak uzten duenean partaide guztien artean taldeko ekintza bat egingo da.

Argazki-kategoriko saridunak:


Hizam Azzouz



Hegoa Gorosabel



Helene Tellechea



Ander Mugica

Este año hemos organizado un concurso entre los centros participantes en la Agenda 21 Escolar. El tema ha sido Cambio Climático y alimentación. Se han creado dos categorías en función de la edad: DIBUJO para el alumnado de educación primaria y FOTOGRAFÍA para la ESO. ¡ZORIONAK a todos y todas las participantes!



LH










DBH1



DBH2





EGINDAKO JARDUERAK ETA ATERATAKO ONDORIO BATZUK

Ikasturte honetan, motzagoa izan bada ere, hamaika jarduera egin ditugu **Klima-aldaketa eta Elikaduraren** gaia lantzeko. Jarraian laburpentxoak duzue eta, baita ateratako ondorio eta emaitza batzuk ere bai:



PASAIA-LEZO LIZEOA

Udal-ordezkariekin urtero antolatzen den **udal foroa** urrian ospatu genuen. Bertan, sail ezberdinetako zinegotziak eta ingurumen teknikaria egon ziren. Aurreko ikasturtean egindako eskaeren erantzunak jaso genituen.

Ikastola osoari EA21en inguruan egiten ditugun jardueren berri emateko Txoko berdea osatu dugu, urtero bezala.



Patruila berdea edo ingurumen-batzordea osatu dugu.

Hamaiketako osasuntsua ospatzen dugu, astero **Fruta-eguna** antolatuz. Konfinamendu garaian, etxean osatutako hamaiketako edo merienda osasuntsu eta dibertigarriak egin ditugu. Artistak ditugu gure artean! (18-19 orrietan).

Gari zientzialariaren bisita jaso genuen ikasturte hasieran **Konposta** zer den eta nola egin ikasteko.

Ikastetxearen egoera zein den ikertu dugu. Horretarako jangelan **elikagaiak xahutzen** diren aztertzeaz gain, zein jaki mota kontsumitzen ditugun eta bertakoak edo garaikoak diren identifikatu dugu ere bai.

1. eta 2. mailatan hamaiketarako zer jaki mota ekartzen ditugun aztertu genuen. Gainera produktu horiek nondik datozen behatu genuen bilgarrietan. Ondoren, lurralde horiek mapan kokatu eta bertatik guregana nola iristen diren eztabaidatu dugu.




Hirugarren zikloan garaiko produktuekin **entsalada goxoak** sortu ditugu. Ikasleen artean, sukaldariak izango ditugu etorkizunean!

Etxekoei elikadura-ohiturei buruzko galdetegia egin diegu. Jarraian jaso ditugu ateratako emaitza batzuk:

GOSARIAK

- Gehienek esnea, zereal gozoak, gailetak eta kolakaoa hartzen dute.
- Gutxi batzuek zuku eta infusioa hartzen dute.

ELIKATZE AUKERA

- Etxean animalia jatorriko duten elikagaiak jaten ez dituzten familia batzuk daude.
- Barazki-jalea den ikasle bat dago. 
- Zeliako bakarra dago ikastolan, baina laktosari intolerantzia duten batzuk.


HOZKAILUAK

- Normalean produktu freskoak (letxuga, tomate, porruak, arrautzak..) izaten dituzte.
- Esnekiak ere asko.
- Haragia, arraina baino gehiago.

AITON-AMONEN OHITURAK

- Elikadura-ohitura ezberdinak zituztela ohartu gara.
- Barazki gehiago jan eta, hauek, mota ezberdinetakoak zirela.
- Esnea briketatik ez zuten hartzen.
- Plastikozko bilgarridun elikagai gutxi zeuden.

Eta eskolan, ze ohitura ditugu? Galderari erantzuna eman asmoz jangelako menuari azterketa txiki bat egin diogu. Hona hemen emaitza:

- Zerealak (ogia) egunero jaten da.
- Astean hirutan barazkiak eta frutak.
- Astean bitan esnekiak eta lekaleak.
- Arraina eta haragi zuria haragi gorria baino gehiago jaten dugu.
- Astero ez dago gozokirik menuan. 
- Jangelako jakiak, batez ere, supermerkatuetan erosten dira.

LEZO INSTITUTUA

Ikasturte hasieran udal foroa ospatu zen Lezoko udaletxean eta, bertan, gure ikasleak egon ziren, herriko beste ikastetxeekin batera.

Ekofish proiektuan parte hartu dugu, itsasoko makro- eta mikro-hondakinak aztertuz.

Ingurumen batzordea eratu dugu.

Ikastetxean, jatorduan eta hamaiketako garaian janaririk xahutzen den aztertu eta hobetzeko neurriak proposatu ditugu:

- Gure dietaren azterna kalkulatzeko saiatu gara eta, horretarako, ikastetxeko jantokian eta gure hamaiketakoan erabiltzen ditugun elikagaien zenbat kilometro bidaiatzen duten aztertu dugu.
- Herritarren ohiturak ezagutzeko online galdetegiak egin ditugu.
- Elikagaiak alferrik ez galtzeko, etxeko hozkailuaren erabilera aztertu dute DBH1 mailan.




Hona hemen ateratako ondorio batzuk:

- Gertuko eta kalitatezko produktuak ekartzen ahalegintzen dira jangelan.
- Janaria alferrik ez galtzeko ikasle kopuruari egokitzen dira.
- Sortutako soberakinak hurrengo egunean erabiltzeko edota etxera eramateko aukera izatea neurri bezala.
- Hamaiketakoan sortzen den soberakin zati handiena bukatu gabeko fruta da.
- Orokorrean, badakigu janaria hozkailuan non kokatu behar dugun. Dena den, hobetzeko tartea dugu.





Herritarrei egindako online inkestan hurrengo emaitzak jaso dira:

- La herritar gehienek klima-aldaketa zer den ezagutzen dute, azaletik bada ere.
- Aipatzen dituzten ondorioak: itsas-mailaren igoera, bero-boladak eta izotz geruzak urtzea dira. Uholdeen, lehorteen eta urakanen areagotzea gutxiago aipatzen dira.
- % 90ak janari-soberakinak aprobetxatzen ditu.
- Galdetutakoen artean % 10ak soilik du bere baratza eta % 40ak familia edo lagun batek baduela adierazi du.
- Inork ez du kontsumo-taldeetan parte hartzen eta % 50ak ez daki hori zer den.
- Erantzun dutenen erdiak elikagaien etiketak irakurtzen ditu hauen ezaugarriak eta jatorria ezagutzeko.
- % 50ak, noizbehinka, ekoizle txikien eta baserritarren produktuak kontsumitzen ditu. Erdiak baino gehiagok garaiko produktuak erosten dituzte beti. Ekoizpen ekologikoa edota bidezko merkataritzari dagokionez, % 30ak noizbehinka horrelako produktuak erosten ditu.



A pesar del coronavirus, durante el curso escolar hemos podido llevar a cabo diferentes actividades: hemos aprendido qué es el compost; estudiado qué tipo de comida se ofrece en el comedor escolar; conocido la importancia de los productos locales y de temporada, y con frutas y verduras hemos elaborado platos muy divertidos. Dentro del proyecto *Ekofish* hemos estudiado los plásticos que se encuentran en nuestro mar; aprendido a organizar correctamente la nevera para que los alimentos duren más, etc.

FRUTA-EGUNA



ETA HURRENGO IKASTURTEAN,

ZER?

Datorren ikasturtean urtebeteko trantsizioa izango du proiektuak. Eskolako Agenda 21en oinarritzko eredu jarraituz, **Eskolako Agenda 2030** programara hurbilduko gara, Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) erdiesteko asmoz.


Oarsoaldea eskualdeko ikastetxeen kasuan, 2020-2021 ikasturtean 15. GIHa lantzea aukeratu da: Lehorreko bizitza edo lurreko ekosistemak, hain zuzen. Gaia zabala izanik BASOen azterketan zentratuko gara. Ingurumenaz gain aspektu ekosoziala ere landuko da.

Zer dira GIHak?

Garapen Iraunkorrari buruzko 2015eko Mundu Gailurrean, NBEko Estatu


Kideek Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda onartu zuten, pobrezia desagerrarazteko, planeta babesteko eta pertsona guztiei oparotasuna bermatzeko xedez. Agendak 17 helburu (EAE mailan 18. helburu bat gehiago onartu da: kultura eta hizkuntza aniztasuna) eta 169 xede ditu. 17 hauei GIH deritze. Bestalde, nazioarteko garapen-agenda, unibertsala eta mundu-mailako desberdintasunak murrizteko tresna da.

Ikusi bideo hau:



¿Y EL PRÓXIMO
CURSO, QUÉ?

Mira este vídeo:



El año que viene la Agenda 21 Escolar evoluciona hacia la Agenda 2030 Escolar. El espíritu será el mismo, pero con el objetivo de lograr los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS).

De cara al curso que viene hemos elegido el objetivo número 15 (Vida de ecosistemas terrestres) y nos centraremos en el tema de los BOSQUES.

¿Qué son los ODS? Los Estados Miembros de la ONU aprobaron en 2015 la Agenda 2030 para el desarrollo sostenible, con el fin de erradicar la pobreza, proteger el planeta y asegurar la prosperidad para todas las personas. Dicha Agenda se compone de 17 objetivos y 169 metas. A estos 17 objetivos se les llama ODS (en la CAPV recientemente se aprobó incluir uno ODS adicional: diversidad cultural y lingüística).